


EUSKAL AE-KO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2011KO UZTAILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,1 jaitsi dira 2011ko uztailean, aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko uztailetik 2011ko uztailera) eraikuntzaren kostuak % 0,5 igo dira.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzako kostuen indizeak % 0,1 egin du behera 2011ko uztailean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa % 0,5eraino igo da.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza uztailako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2011ko uztailean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), baina lehengaien kostuek % 0,1eko beherapena izan dute.

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreetako lehengaien kostuek bilakaera ezberdina izan dute uztailean; aurreko hilabetearen aldean % 0,2 egin dute behera eraikuntzako kostu horiek eta % 0,2 egin dute gora obra zibilaren kostuek. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera aztertuta ikusten da eraikuntzako lehengaien kostuek % 0,6 egin dutela behera baina obra zibileko kostuek % 3,3 egin dutela gora.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, petrolioaren birfinketa (% 24,4); energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 20,9), eta metalgintza (% 9,3) sektoreak izan dira. Baina ondoren ematen diren sektoreetako lehengaien prezioak

urte batetik bestera (2010eko uztailetik 2011ko uztailera) txikitu egin dira edo igoera txikiagoa izan dute: erauzteko industriak (-% 7,4); metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (% 0,6) eta altzarien fabrikazioa eta manufakturen beste industria batzuk (% 1,3).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO UZTAILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,0	-0,1	0,5	0,5
ERAIKINAK	117,9	-0,2	-0,1	0,1
OBRA ZIBILA	123,1	0,2	2,8	1,9
LEHENGAIEN KOSTUA	118,0	-0,1	0,3	0,3
ERAIKINAK	116,7	-0,2	-0,6	-0,2
OBRA ZIBILA	123,2	0,2	3,3	2,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01.

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp